

## **BBVA FUNDAZIOA: IKERTALDEENTZAKO LAGUNTZEN DEIALDIA (2016)**

### **Lehentasunezko ikerketa arloak:**

1. Biomedikuntza
  - a. Onkologia
  - b. Kardiologia
  - c. Neuroendekapenezko patologia
2. Kontserbazioaren ekologia eta biologia
3. Ekonomia eta gizarte digitala
4. Giza zientzia digitalak
5. Big data

### **Proiektuen iraupena:**

Biomedikuntzako proiektuek 3 urteko iraupena izango dute. Gainerakoak gauzatzeko, gehienez, bi urte izango dira. Proiektuekin, oro har, 2016ko irailaren 30 baino lehen hasi beharko da.

### **Finantzaketa:**

- ✓ Biomedikuntza: 125.000 euro gordinoko 6 laguntza.
- ✓ Kontserbazioaren ekologia eta biologia: 1000.000 euro gordinoko 5 laguntza.
- ✓ Ekonomia eta gizarte digitala: 100.000 euro gordinoko 5 laguntza.
- ✓ Giza zientzia digitalak: 75.000 euro gordinoko 5 laguntza.
- ✓ Big data: 100.000 euro gordinoko 5 laguntza.

### **Ikertzaile nagusiak bete beharreko baldintzak:**

- a. Espainiar nazionalitatea edo bizileku iraunkorra edo iraupen luzekoa Espainian izatea.
- b. Doktore titulua izatea.
- c. UPV/EHUrekin funtzionario, estatutu edo kontratu lotura izatea eskaera aurkeztu duen une beretik eta proiektua gauzatu bitartean.
- d. Eskaera bakarra egin dezakete "Ikertaldeentzako Laguntzak" eta "Ikertzaile eta Sortzaile Kulturalentzako Laguntzak" izeneko deialdietan.

### **Ikertaldeko kideek bete beharreko baldintzak:**

- a. UPV/EHUrekin funtzionario, estatutu edo kontratu lotura izatea eskaera aurkeztean.
- b. Lotura izatea edozein herrialdetako irabazi asmorik gabeko eta, eskaera aurkezten denean, ikerketara emanak diren beste unibertsitate edo ikastegi publiko edo pribatu batzuekin. **Pertsona horiek UPV/EHUa aurkeztu beharko dute haien jatorrizko erakundeak emandako idatzizko baimena.**
- c. Beste proiektu batzuen karguko obra edo kontratu zerbitzua duten ikertzaile kontratatuek **EZIN** dute parte hartu deialdi honetan.
- d. Eskaera bakarrarekin parte har dezakete "Ikertaldeentzako Laguntzak" eta "Ikertzaile eta Sortzaile Kulturalentzako Laguntzak" izeneko deialdietan.

**OHAR GARRANTZITSUA:** Ikertaldeko kideek, laguntza gauzatu bitartean, UPV/EHUrekin duten lotura amaitzen bada, **ezin** izango dute gasturik egotzi

aipatutako egoeran dauden bitartean. Ikertzaile nagusiak eman beharko dio Ikerketaren arloko errektoreordeari proiektua gauzatu bitartean gertatzen diren bajen berri.

**Aurkeztu beharreko dokumentuak:**

- a. Ikertzaile nagusiaren NANaren edo pasaportearen kopia.
- b. Ikertzaile nagusiaren bizileku ziurtagiria, bizileku iraunkorreko txartela edo atzerritarren nortasun agiria, betiere indarrean direlarik.
- c. Proiektuaren zientzi memoria formatu librean.
- d. Taldekide guztien CVA.
- e. UPV/EHUko Etika Batzordearen txostena, behar izanez gero.
- f. Aurrekontua.
- g. Parte hartzaileen zerrenda. Agiri honek UPV/EHUko Ikerketaren arloko errektoreordeak sinatuta egon behar du.

Eskaerak EZIN IZANGO DIRA ZUZENDU eta Biomedikuntza eta Big Data modalitateetan ingelesez aurkeztu beharko dira.

**Aurrekontua prestatzeko jarraibideak:**

Behekoak joko dira diru gastu hautagarritzat:

- a. Langileen kontratazioa (Doktorego aurreko eta doktore ondoko kontratuak)
- b. Material inbentariagarria
- c. Material suntsikorra
- d. Bidaiak eta egonaldiak
- e. Bestelakoak

UPV/EHUko ikertzaile nagusiak aurkeztutako eskaerak zehar kostuen % 5a jaso beharko dute aurrekontuan.

**OHAR GARRANTZITSUA:** 2008ko apirilaren 29ko Erabakian –horren bidez agintzen da UPV/EHUko Estatutuen 315. artikulua garapen arautegia argitaratzeko-jasotakoa aplikatuz, irakasle-ikertzaileek ezin izango dute nominan ordainsaririk jaso deialdi honen bitartez.

**Eskaerak aurkezteko epea:**

**2016ko apirilaren 28ko 19:00ak arte**

**Eskaerak UPV/EHU n aurkezteko prozedura:**

EPEMUGA	ARDURADUNA	IZAPIDEA
2016ko apirilaren 1a	Ikertzaile nagusia	Bidali "I. eranskina" proposatutako ikertaldearen berrikuspenerako: <a href="mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus">convocatorias.dgi@ehu.eus</a> ,
2016ko apirilaren 6a	Ikerketaren arloko Errektoreordetza	Taldearen berrikuspeneraren emaitza jakinarazi.
2016ko apirilaren 20a Data horretatik aurrera ez da bermatuko ordezkari legalaren abala behar duen dokumentazioa epe barruan bueltatuko denik.	Ikertzaile nagusia	Bidali aurrekontua eta jatorrizko "Eskatzaileen zerrenda" errektoreordeak sinatzeko. <u>Fase honetan ez da zientzi memoria bidali behar.</u>

<b>2016ko apirilaren 25a</b>	Ikerketaren arloko Errektoreordetza	Bidali errektoreordeak sinatutako eskaera.
<b>2016ko apirilaren 28eko 19:00ak</b>	Ikertzaile nagusia	Bidali eskaera osoa artxibatzeko: <a href="mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus">convocatorias.dgi@ehu.eus</a>

**OHAR GARRANTZITSUA:** Ikertzaile nagusiak aurkeztu beharko du eskaera, dagokion epean eta moduan, Fundazioaren aplikazioa erabiliz.

**UPV/EHUren datuak eskaera orria betetzeko:**

Hauek dira erakundearen (UPV/EHU) datuak eskaera betetzeko:

- Ordezkarri legala: Fernando Plazaola Muguruza
- Kargua: Ikerketaren arloko errektoreordea
- IFK: Q-48/18001-B
- Helbide soziala: Sarriena auzoa z/g
- Posta kodea: 48940
- Herria: Leioa
- Harremanetarako helbide elektronikoa: [convocatorias.dgi@ehu.eus](mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus)

**UPV/EHUrekiko harremana:**

- Telefonoa: 94 601 80 08
- Faxe: 94 601 35 50
- E-maila: [convocatorias.dgi@ehu.eus](mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus)

**BBVA Fundazioarekiko harremana:**

- E-maila: [ayudas-investigacion@bbva.es](mailto:ayudas-investigacion@bbva.es)

**Informazio gehiago:**

<http://www.fbbva.es/TLFU/tlfu/esp/noticias/fichanoticia/index.jsp?codigo=1636>